

Euskaltzaindia Sarako Idazleen Biltzarrean

Aurten ere, Sarako idazleen biltzarrean, Euskaltzaindiak aurkeztuko ditu Iparraldean egin dituen argitalpenak, euskara eta euskal kulturaren alorrean. Lanean jardun du Euskararen Akademiak Euskal Erakunde Publikoarekin, hitzarmen baten bidez, hitzarmen hori dela urtez urte baliabide desberdinak eskaintzen dituen euskalgintzaren sustapenerako.

2011. urtean, bestalde, uza eta fruitu ederrak ekarri ditu elkarren arteko lanak, lau liburu ondu baititu Euskaltzaindiak, EEPren laguntzarekin. Lehena, zubereraz idatzia da, eta euskaltzain ohorezko den Junes Casenave-Harigile zuberotar maisuak eskaini digu, pastoralaren nondik norakoak bikain azalduz; bigarrena, aldiz, Henri Duhauren esku trebeak moldatu du, Gratien Adema zenaren seigarren liburua biribilduz; hirugarrena, oster, egungo erabileraren aldetik etorri zaigu, eta Erramun Baxok euskaltzain ohorezkoak eta Battittu Coyos euskaltzain osoak bete dute buru-belarri, EEP delakoak egindako inkesta oinarri hartu eta gazteen erabilera euskararen aldetik molde orohartzailean plazaratuz.

Laugarrena ere bada azpimarratzekoa, hain zuzen ere, Xarles Videgain euskaltzain osoak berebiziko lana egin baitu Eugene Goienetxe zenaren doktorego tesia argitaratzeko. Lan luze eta gaitza, Iparraldeko onomastikaren hainbat gako ematen dizkiguna.

Ezin ahanztz, bestalde, Luzien Etxezarreta euskaltzain urgazleak azken urteetan, arian-arian, egin duen hats luzeko ahalegina, Xipri Arbelbideren ahots grabaketak numerizatzeko eta sailkatzeko.

Ez dira, alabaina, halakoak, Euskaltzaindiaren lan bakarrak Iparraldearen eremuan. Hartara, hiztegigintzan nahiz gramatikan, dialektologian edo literaturan, iparraldeko euskaltzainek etengabe egiten dituzte beren ekarpenak, euskara bat eta bakarra dugulako ideia indartuz eta garatuz, lekuan lekukoak ere alboan utzi gabe.

Aipatzekoak dira, besteak beste, toponimia eta onomastikan Euskararen Akademiak burutzen dituen lanak. Orobat, argitalpenen hizkuntza kalitatea bermatzekoak. Hitz batez esateko, Akademia bati dagozkionak, Annie Etxeberri bulegari egokia ere ahanztzi gabe.

Akademia hori, nolanahi ere, kezkatuta dago euskararen geroaz eta badaki une esanguratsuak bizi direla Iparraldean, gobernantza estatus berri baten bila (horra Garapen Kontseilua eta Hautetsien Kontseilua). Horrexegatik lan egin nahi du bilaketa horretan eta euskarari eta euskal kulturari dagozkien gaietan, partaide izan, hainbat erakunde eta elkarteekin batera. Euskararen ofizialtasuna behin eta berriro aldarrikatu du Euskaltzaindiak, eta urrunera joan gabe, Akademiaren buruordea eta Iparraldeko ordezkaria eta hainbat euskaltzain oso, tartekoak izan dira Baionako kale agerraldian. Era berean, Euskal Kultur Erakundeak Maulen egindako urteko bilkuran, bertan izan baita Akademiaren ordezkaritza zabala, buru eta buruorde eta Iparraldeko ordezkaria barne, Iparraldeko euskalgintza barne-barnetik ezagutu nahian.

Elkarrekiko lana dugu, beraz, egitekoa Iparraldean eta Euskal Herrian eta horretan, bistan da, Euskaltzaindiak partaide nahi du izan. Partaidetza emankorra eta eragilea behar da, eta horretarako apustua egiteko prest dago euskararen akademia, sortzetik bertatik egin duen bezalaxe.

Sarako Idazleen Biltzarra egundoko aukera da bidegintza horretan. Urtez urte bertaratu garenontzat, nabarmena da haren ezaugarriak bereziena, hots, idazleak han izan eta beraiekin hitz egiteko eta partekatzeko parada. Baliatu dezagun hori, berori baita, euskararen bidegintzan, urteroko lekukotza eta aitzinamendua, hats eta ekimen berrietarako hasiera ezin hobe.

Andres Urrutia / euskaltzainburua